

Bizitzeko leku egokiena, bizitza bera

Gilkitzarok etxebizitzari buruzko antzezlan bat estreinatuko du etzi Bilbon: 'Honolulu, leku bat'

IRUNE BERRO
Bilbo

Bizitzeko leku perfekturik ba ote dagoen galdetzen diote elkarri Gilkitzaroren obra berriko pertsonaiek: Luluk (Ane Zabala aktorea) eta Elmerrek (Galder Perez). Haien irudiko, etxe baten jabe izatea ezinbesteko bihurtu da Mendebaldeko pertsonentzat; «etxebizitzak alaitasuna, jakinduria, maitasuna, dibertimendua eta adimena ordezkatu ditu», uste dute. Horri aurre egiteko, Luluk eta Elmerrek beren sistema empirikoa sortu dute: bizitza. Eta tokian tokiko ikusleekin partekatuko dute. Aurrena Bilboko ikusleekin izango dira: Gilkitzarok gaur estreinatuko du *Honolulu, leku bat* obra, Kafe Antzokian, Korrika Kulturaren barruan.

Formatu txikiko obra da *Honolulu, leku bat*. Eta bi aktorek baino ez dute emango, Zabalak eta Perezek. Elkarrekin bakarka lan egiteko gogoia zutela azaldu dute, baita ikusleekin harremana berreskuratzeko nahia ere. «Ikusleengandik hurbil egotea gustatzen zaigu, haiengandik aldentzen gaituen laugarren pareta hori apurtzea», adierazi du Zabalak. Gilkitzaroren aurreko obrak, *Elevator*-ek, ez zuela horretarako aukerarik ematen esan dute. «Istorioko kontaketa genuen eta kito». Baina *Honolulu, leku bat* obrako pertsonaiaiek iritziak, gertaerak eta egoerak partekatuko dituzte ikusleekin. Zabalak azaldu duenez, beren obra ikustera doazenei ez diete eskatuko parte hartzeko, baina hamaika galdera egingo diete,



Honolulu, leku bat Gilkitzaroren obra berriko pertsonaiaetako bat, Lulu. BERRIA

obrak kontaktzen duena uanean bizi eta senti dezaten.

POESIA ETA ABSURDOTIK GERTU. Perezek idatzi du obra, eta esan duenez, «askatasunari buruz» mintzo dira pertsonaiaiek, norbanakoan independentzia. «Posible ote da hori? Ba al dago baldintzarik horretarako? Zehatzago esanda: ba al dago baldintza materialik eta pertsonalik horretarako?», galdetu du. *Honolulu, leku bat* antzezlaneko gidoia «poesiatik eta absurdotik gertu» dagoea dio Perezek. Eta «komedia ukitua» duela gaineratu du Zabalak; «pertsonaiek komiketik edo marrazki bizidunetatik ateratakoak dirudite». Berez iluna den gaiari argitasun pixka bat ematen ahalegindu dira Zabala eta Perez. «Tratatzen dugun gaia ez da goxoa, ezta erraza ere. Hori

dela eta, pertsonaia koloretsuak jarri ditugu zuria eta beltza besterik ez den inguruan». Nino Moreno artista arduratu da obraren estetikaz.



«Askatasuna, norbanakoan independentzia posible ote den galdetzen diote beren buruari pertsonaiaiek»

GALDER PEREZ
HONOLULU, LEKU BAT OBRAREN IDAZLEA

Gilkitzaroren seigarren obrak, gainera, bere musika du. Gontzal Gutierrezek eta Split 77 taldeko Ekaitz Hernandezek egin dituzte antzezlanerako musika piezak. Eta Maitane Zalduegi arduratu da koreografiaraz. Izan ere, Lulu eta Elmer pertsonaiaiek elkarrizketekin tartekatuko dituzte hainbat mugimendu koreografiko.

Obra «arina» prestatu dute Zabalak eta Perezek, Kerra Gabikageaskoaren zuzendaritzapean. Eta, Korrika Kulturalean aurkeztu ondotik, hainbat tokitan emango dute; besteak beste, Tafallako Kultur Etxean (hilaren 16an), Larrabetzuko Hori Bai gaztetxean (hilaren 18an), Santurtziko Kresala aretoan (hilaren 22an), Zumaiaiko Institutuan (hilaren 23an) eta Bilboko Bidarte auzo etxean (maiatzaren 16an).

Fujimoriren «ustelkeria» dakar Lombardiren film berriak

ERREDAKZIOA

Laster izango da Euskal Herriko zinemetan *Mariposa negra*, Francisco Lombardi zinemagile perutarren azken filma. Fujimoriren erregimenaren «ustelkeriaren» inguruko filma egin du: «Peruk begiak itxita bizi izan zuen garai hori. Horregatik, eskandalua azaleratu zenean, *shock* nazionala izan zen», esan du zinema zuzendariak film berriaren harira.

Peruko zinemaren erakusle garbiena izateaz gain, Latinoamerikako zinemako zuzendari garrantzitsuenetakotzat jotzen dute. Lehenago ere jorratu zuen Fujimoriren erregimena, *Ojos que no ven* filmean. Erregimenaren azken egunen inguruko zen hura, eta Donostiako Zinemaldian lehia zuen 2003an: «Film hura egin nuen eskandalua gertatu eta berehala. Behar bat izan zen; hainbestearainokoa, ezen azkar eta presaka grabatu genuen, hainbat belaualdi eta jenderen erreakzioa erretatatu ahal izateko».

Mariposa negra filmatzeko, Alfonso Cuetoaren *Grandes Miradas* nobela arrakastatsuen egokitza pen «guztiz askea» egin du, «jende gehiagorengana heldu ahal izateko».

Bai liburuak eta baita filmak ere egiazko gertaera batean dute abiapuntua: epaile baten erailketa eta ondoren prentsan agertzen den bertsio gordina: «Montesinosok, Fujimoriren itzalak, egin zuen boterearen erabilerari buruz hitz egin nahi izan dute», adierazi du zinemagileak. Filma «autokritika zentzu» handiarekin egin du Lombardik. Fujimoriren inguruan hiru film egiteko asmoa zuen hasieran, baina egun «mekatuta» dagoea agertu du zinemagile perutarrik.

IKUSI ETA IKASI

Magia, Antzerkia, Iratzeongintza, Ipuin Kontaketa...

Bilboko haur eskola perukoak

Antolatzailea: Bilbao

Babeslea: bbk

Laguntzailea: berria

<p style="font-weight: bold; font-size: 1.1em;">Martxoak 13</p> <p style="font-size: 0.8em;">Asteartea</p>	<p style="font-weight: bold; font-size: 0.9em;">NIKO ETA PERIKO palizaak,</p> <p style="font-size: 0.8em;">11:00etan, Begoñakalera udaldegia,</p>
<p style="font-weight: bold; font-size: 1.1em;">Martxoak 15</p> <p style="font-size: 0.8em;">Osteguna</p>	<p style="font-weight: bold; font-size: 0.9em;">GORRINGO ANTZERKI TALDEA,</p> <p style="font-size: 0.8em;">duta bat jipodromoan,</p> <p style="font-size: 0.8em;">18:00etan, Bilboko La Bola antzokian.</p>
<p style="font-weight: bold; font-size: 1.1em;">Martxoak 17</p> <p style="font-size: 0.8em;">Larunbete</p>	<p style="font-weight: bold; font-size: 0.9em;">AINHOA IRAZU ipuin bantalarik</p> <p style="font-size: 0.8em;">Kalea ipuinak,</p> <p style="font-size: 0.8em;">11:00etan, Donostia Bidarte udaldegian.</p>

HITZALDIA: "EUSKAL KULTURAREN AJAK" ETA LITERATURA"

MARTXOAK 14

19:30ean

KIRMEN URIBE

EUSKALTZAINDIAREN egoitzan (Bilboko Plaza Barrian)

«New Yorkeko auzo batean sartzen gara cuskaidun guztiek.»

Bilbo Zaharra forum

Centro, 8 48005 BILBAO Tfono: 94 413 82 92 Fax: 94 413 89 11 WWW.BILBOZAHARRA.COM | bilbozaki@sarenet.es